




Historia: Eustakio Mendizabal «Txikia», abertzale belaunaldi baten mitoa. Gatzaga taldea. ■ Aljeriako gerlaz. J.L.Davant. ■ Saiakera: ETak hogeitabost urte. J.Apalategi. ■ Nazionalismo espāñolak erasotzen gaitu. Beltza. ■ Geopolitikaren inguruan. P.Sastre. ■ Elkarrizketa: Iñaki Larrañaga. Euskararen sustutuzio prozesoa ez da gelditu. ■ Dossierra: Ikastolak. Historia, egoera, etorkizuna. ■ Ekologia: Euskal Herriko basoen hondamendia. Donostiako Ekologistak.





*Ikastol eta eliz askotan
atea didate itxi;
atzerritarrak ta seme askok
lapur bat antzo ezetsi!
nere izena apaldu arte
iñoiz ezin dute etsi...
Zer egin diet etsai bezela
ainbat nazaten gaitzetsi?*

*Eustakio Mendizabal Benito
Itsasondo, 1944-X-9
Algorta, 1973-IV-19*

Eustakio Mendizabal

«Txikia»

abertzale belaunaldi baten mitoa

Luzaz iraunen du euskaldun askoren oroimenean 1973ko Ostegun Santu hark. Euskal erresistentzia armatuan ordurako mito bihurtua zen Txikia hil zuten eguna. Eustakio Mendizabal Benito Polizia espainolaren tiroqean erori zen Euskadi Ta Askatasunako Fronte Militarreko bururik ezagunena, garai hartako karismatikoena agian, apirilaren 19 hartan, Getxoko kaleetan. Hogeitabederatzi urte zituen eta lau urte t'erdiko lan klandestinoz euskaldun gazte belaunaldi oso baten erreferez tzi puntu izatera iritsia zen. Bere euskal senak, erakargarritasunak eta ausardiak aparteko egiten zuten Txikiaren bizitzan aztarrikatzeak, azken urteotako gure historiaren garairik interesgarrienetako batera garamatza: ekintzaren poderioz ETA sendotze bidean jarri zenekora.

Azken urteotan Euskal Herrian sortu den fenomeno berririk inportanteenaren, Euskadi Ta Askatasuna erakundearen unerik gogorren eta aldi berean itxaropentsuenen erdian tokatzen da Eustakio Mendizabal. Iparraldera ihes 1968an egin zuelarik, Burgosko auzi famatua batetik eta Carrero Blanco Francoren gobernu burua hiltzeko prestaketa lanak harrapatzen dituzte bere klandestinitate

urteek. Kartzela berriz Txabi Etxebarrieta heriotzaren ondorioz antolatu ziren meza haietako batengatik ezagutu zuten lehendabiziko aldiz.

Baina Txikia ez dute koinzidentziek immortalizatu. Askorentzat ETAre buru Eustakio zelarik, berak ezarri zion aktibismoaren seilua neurri haundi batean erakundeari. Behil kontsul alemanaren bahiketa, Huarteren bahiketa, Carrero aideratuko zuen atentatuaren prestaketa... Baina gainera herri xeheagan ere halako itzal bat lortu zuen, batzuetan militanteei «zerbaitetan» laguntzen zion jendeagan, eta baita bere azioak komentatzen zituen jende arruntarengan ere.

Che Guevara euskaldun bat ikusi dute askok Txikiagan. Zumalakarregirekiko zuen antza aipatu du zenbaitek. Beneditarretatik irten arren kristau idealista izaten jarraitzen zuen gizona ikusi duenik ere bada. Dena delarik ere, bere pentsamentu politikoa inongo liburutan utzi ez zuen gudari hark historian orri pare bat bederen merezi du, Telesforo Monzonek kantatu zuen bezala «... gure haurrek biharko ikastoletan beren izenak ikasi ditzaten, Herriarentzat haiek hil bait ziren».

Itsasondotik Lazkaoko komentura

Itsasondon jaioa zen Eustakio Mendizabal, 1944ko urriaren 9an. Joxe Mendizabal eta Josefa Benitoren 4 seme-alabetatik hiru Lazkaoko beneditarren komentura joango ziren ikastera, garai haietan eta baita ondorengo urteetan ere euskal herrietan usadio bihurtua zen moduan.

Mutiko oso normal eta korriente bezala aipatzen dute Eustakio orduan ezagutu

zuteneak. Txikia, isila, ikasketetan ez goitik eta ez behetik nabarmentzen ez zena, eta kirolzale amorratua. Lazkaon 1954ean sartu zelarik, eta 1967an atera, esan liteke klero euskaldunak ezagutu duen girorik «saltsatsuen» oso gertutik bizi izan zuela.

Horren berri ongi daki gaur egun Lazkaoko Euskal Eskolako zuzendari den Dionisio Amundarain beneditarrak. «130 bat fraile eta frailegai bazen urte horietan Lazkaon, horietatik 30en bat mezadunak eta hauetatik 20 bat gazte-gazteak. Eta tarte horretan euskal giroa bete zuten».

Euskaraganako zaletasuna komentuan piztu zitzaion eta bere eskuetara erortzen ziren euskal liburu guztiak iristen omen zituen, nahiz eta bere fraile-lagunek aitortzen duten sekula ez zela intelektual haundi bat izan, baratzan lan egitea nahiago zuela.

Familiaren eragina ere ez da ahantzi behar. «Giro horretako asko karlisten semeak ginen», diosku Dionisioren anaia Benitok, «eta hire familiarekin hautsi behar duanean beste hari bati heltzeko krisibatetik pasatu behar duk. Eta a tope sartzan haiz. Esan behar da hala ere ez zela hori Eustakioren kasua: bere aita beti izan da abertzalea, gerra garaian ere».

60. hamarkadako ernealdia komentuetaraino ere iritsi

Eustakio baino zaharragoko beneditarrek beren kasa ikasten zuten euskara, baina bere garairako klaseak baziren eta antzerkiak-eta ere egiten zituzten. Hala ere ez zen komentu barruko giroa erabat euskaltzalea izanen. Bazkari garaian liburu baten irakurketa entzuten zuten fraideek (gaur egun ere bai, antza), eta Eustakiok euskarazkoak sartzeari lortu zituen bezain agudo kendu erazi omen zuten beste beneditarrek.

Berak segitzen zuen, hala ere, bere kasa eta inguruko instituto eta ikastetxeetako mutikoentzat (mutilentzat bakarrik) klaseak ematen zirenez Txikiak euskara eta dotrina edo historia ematen zuen, euskaraz.

Bitartean ordean, 60. hamarkadan kaletan giroa pil-pilean jarria zen. Gazte eta langile mogimenduak indarrean zetozen. Juventudes Obreras Católicas (JOC), langile aldera gehiago makurtua, internazionalismoz eta bestez kezkatzen

zena, batetik, Herri Gaztedi bestetik, nazio arazoari haboro lotua, euskara dela eta abar. Hirugarren bat ere bazebilen, Vanguardia Obrera Juvenil, jesuiten eta Comisiones Obreras-etatik hurbil eta ELAtik urrunago.

Gero ETaren fenomenoak sortzen zituena dinamika guztiak zeuden, propaganda bezala bilerak, eta azken finean hildako militanteen aldeko solidaritatea ere bai denborarekin. «Gazte pila bat inguratzen zen Lazkaora», dio Dionisio Amundarainek, «eta multikopista ere hemen zegoen. Sekulako arma zen garai hartan multikopista».

Etxebarrietaren heriotzearen astindua

Baina kanpotik ikusten zen baino gazte gehiago zebilen «zerbaitetan». Eta Pardines guardia civila hil ondoren inguratu zegoen Tolosatik atera nahian Benta-Aundin ETak bere lehen militantea galdu zuenean, Txabi Etxebarrieta, espero ez bezalako mogimendua sortu zen herriz herri. Etxebarrietaren aldeko mezak.

Lazkaon ere antolatu zen elizkizun bat eta meza garaian Irun aldetik etorrira «Guerilleros de Cristo Rey» talde eskuindarreko sail bat azaldu zen elizan.



Santa Ageda eskean. Euskarari zion maitasunak oso gaztetik eraman zuen hizkuntza eta kultura aztertu eta lantzeraz.

Korura igo eta handik ari zitzaizkien protesta modu hartara agertzeko ausardia izan zutenei «¡Cabrones!» eta «¡Maricones!» oihuka. Bitartean, koru bazter batean beldurrez akabatzen zegoen fraide

batek hots bat entzun zuen bere alboan: dorrean ikurrina jarrita jaisten ari zen Eustakio.

Hilabeteko egonalditxo bat egin behar izan zuen Eustakiok Martuteneko espetxean, meza haren ondorioz edo manifestaldiren batean parte hartzeagatik Go-bierno Civilak ezarri zion multa ez ordaintzearen. Eta Martutenen ere euskarazko klaseak ematen.

Handik aurrera gutxi iraun zuen Lazkaon Eustakiok, eta urte beteko esperientzia egitea eskatu zuen komentuan, teologia ikasketak ia bukatu eta emateko gutxi falta zitzaionean. Bilbon lana aurkituta, han aritu zen untxigintzako lantegi batean, Franco-Espanñolan, 67tik 68aren hasiera aldera arte. Jada fraidetza utzirik, Beasaingo tailer batean sartu zen lanean, eta aldi berean Magisterio ikasketek ekin zien.

Baina adiskide bat deteniturik, laster azaldu ziren bere etxera poliziak. 24 ordu eduki zituen poliziak zai etxean, alferrik: juntu-juntu alde egina zen.

Emaztea, haurrak eta elizatik ez pasatzea

Beneditarrek Estibalizen duten komentuan egon zen denboraldi batean ezkutututa, Bidasoa zeharkatzeko aukera



«Dame unas botas», esaten omen zuen Tomas Perez Revillak, «pero como las de Eustakio, con motorsito»



Lazkaoko komentutik atera eta urte betera Iparraldera ihes egin zuen Eustakiok.

bat aurkitu zuen arte. Eta han Belokeko komentuan pasako zuen urtebete. «*Ihesi zihoazenei*», oroitzen da Benito Amundarain, «*mantendua eta lo egiteko lekua oso merke ematen zieten Beloken, eta fraide ginenean, izandakoen eta sekula izan gabeen artean koadrila bat osatzen genuen han*». Eustakiok Beloken egindako bost hilabeteetan makina bat errefuxiatu ezagutu zuen, haien artean gaur ELAko lehendakariorde den Leunda bera ere bai.

Baionan aurkituta laster jarriko zen hango buhardila batean bizitzen, beste lau iheslarirekin. Gaur egun Ipar Euskal Herrian dauden hegotarrei frantses administraritzak gorriak ikus erazten badizkie, orduan ere beren egoera ez zen bate-ere eroso. «*Charte de Travail*» nekez ematen zieten eta lanez aldatzen ihardun behar izaten zuten sarri askotan. Gose grebetako argazkietan aurkitzen dugu Txikia.

Han jarri zen bizitzen Ondarroako neska gazte batekin, Anabel Zubikararekin. Ez ziren hala ere elizatik ezkonduko, erabaki horrek inguruan istilu ugari sortu arren, eta beren bi haurrak ere, Matalaz eta Ekaitz, Euskal Herrian bataiatu gabe pasatzen ikusi diren aurrenetakoak izan ziren.

Horrela utzi nahi zuen argi eta garbi erlijioaganako bere jarrera, geroztik ere kristau izaten segitzen zuela uste dutenei arrazoia kenduaz.

Eszisioaren ondoren, ETAk ia hutsetik hasi behar

ETAKo «mili»en nukleoa osatzen zutenek Donapaleu inguruko herririka batean lantegi tiki bat zuten eta haiekin bizitzera joan zen Eustakio. Iparraldea ongi ezagutzera iritsi zen eta hango abertzaleek gogoan dute oraindik ere bere gabardina berdearekin eta askotan mobilette batean ibiltzen zen Txikia.

Bi aldiz detenitu zuen polizia frantzesak, bieran muga inguruan eta bieran arma zuela. Bigarren aldian kartzela ere ezagutu zuen, eta Paueko auzitegiak aske utzirik, bi hilabete etxe batean ezkutan egon ondoren Hegoaldera pasa zen. Handik laster eroriko zen.

Hegoaldean bezala Iparraldean ere euskaldun jendea lanean jartzeko nortasun oso berezia omen zuen. «*Isiltasunaren izaria zuen*», esplikatu digu borroka armatuan bezala bizitzan ere Eustakio hainbeste ezagutu zuen Jose Manuel Pagoaga «Peixoto»k. «Garai bateko euskaldun zaharraren hitzegiteko manierak, arrabotsak eta denak, oso ongi gordetzen

zuten. Jende nagusiarekin izugarriko berezitasuna zuen. Areago, esango nuke, garai hartan Erakundearen ezagutu dudan gu baino hamar-hamabost urte gehiagoko jende guztia berak ekarria zen».

Eta jende behar haundia zuen ETAk. Behar hori betikoa bada, aurreko erorke- tez gain VI.ekoekin izandako tirabirek eta eszizioak erakundea ia hutsetik hastera kondenatu zuten. Gero «minos» marxista-leninistetan eta «mayos» (gehiengo osatzen zutelako) troskistetan zatituko ziren sestakoen alde egiteak ia bakarrik utzi zituen fronte militarrekoak.

Miliek egin behar izan zuten apostuaz oroitzen da Txikiaren garaietan liberatu ibili zenetako bat. «*Pentsa ze nolako kritikak jaso zituzten Behil kontsul alemana bahitu zutenean* (Burgosko auzi famatuarekin lotuta egin zen bahiketa hau auzipean zeuden preso batzuek kondenatzeraino), *Huarteren bahiketa egin zutenean. Hala ere arriskatu egin ziren eta aktibista minoritario batzuk ez zirela erakutsi zuten; sistema izan bait zen eta ez herri mogimendua kolpea jasan zuena. Eta asmatu egin zuten*».

'Puto mili' mesprexuaren erdian Eustakioren prestijioa

70. hamarkadako liberatuen lanak ez ziren gaur eguneko antzekoak izanen, erakundea bezala egoera ere oso ezberdinak zirelako. Aipatu dugun liberatu-ohi horrek esplikatzen digu. «*Agenda bat zenuen, eta hilabete hainbeste aldiz taldeak zeuden puntuetatik pasa behar zenuen, kontaktoak egin, taldeei materiale teoriko eta logistikoa pasatu, azaltzen ziren arazoak konpondu eta abar. Gero eskola sozialak ere hor zeuden*».

1966-67 urte horietan indarrean ibili ziren Eskola Sozialak, eta 71 ean berriro hasteko saiok izan ziren, baina krisian zeuden, ETAk zekarkien krisiaren erdian. Ideia politikoen historia, materialismo dialektikoa, materialismo historikoa, ekonomia eta holako gaiak ematen ziren Eskola Sozial horietan.

Krisian zegoen ETA eta neurri haundi batean horren sustraian langile mugimendutik zetozen militantek milienganako zuten konfiantza ezean zetzan. Debate ideologiko eta politiko oso bizien erdian, miliaren figura mesprexagarria izatera iritsi zen zenbait giro ezkertiarretan.

«Seigarrenekoek tipo bat hondoratze-ko 'puto mili' deitzen zioten», diosku gaur egun Hegoaldean bizi den militante-ohiak. «Eustakiok eskema hori hautatu zuten, ez baitzen 'puto mili' ezjakin bat, klase zapalketa kontutan hartzen zuten, Fronte Obreroa bultzatzea proposatzen zuten...»

Tolosaldetik Irunerakoa zen bere zona

Aparato militarra Eustakiok pertsonifikatzen zuten barruan lanean ari zirenentzat. «Nik esanen nizuke askotan bera zela eztabaida batean balantza definitoboki makurtzen zuena». Askotan izakera hutsez ingurukoei erasten zien konfidantzaz. Eta berak ikusi zuten anekdota bat kontatzen digu erakunde militarreko liberatu-ohiak.

Preasablada edo biltzarraurre batean langilegotik zetozen militante batzuek aztergai bezala puntu bat proposatu zuten: borroka armatuaren beharra onartzen da baina momentu batean masei subordinatu behar zaio, edo behar izanez gero baita geratu ere ekintza armatuak.

Erakunde indar haundia zuten batek aurpegi oso ona ez omen zuten jartzen. Eustakiok lasaitu omen zituen gauzak: «Hi... lasai. Egun batean hauek geldirik egoteko esaten badigute, geldituko gaituk. Bi aldiz, baita ere. Hirugarren aldiz ere bai. Hortik aurrera, ikusiko diagu».

Baina Txikia ez zen direzioko gizona bakarrik, ezagutzen duten gehienek «barruan» (Hegoaldean) egindako lan eta ibileretatik ezagutzen dute. Tolosaldetik Irunerainoko zona zen berea. Erresistentzi borrokaren ardatz erakunde militarra jartzen bazuen, dinamikaren aintzindari izanen zen foko bat behar zen.

Eta bere zonaldean hori lortzen saiatu zen. Ekintzarik sendoenak ere zona hartan egin ziren, eta zenbait ekintzatarako (Donostian sindikatu frankistaren egoitza erre zenean, adibidez) beste eskualdetakoak ere haruntza biltzen zituen Eustakiok.

Che Guevararen lan guztiak bere liburutegian

Borrokarako nukleo bat indartze saio horretan bere bailaran fronte banaketa klasikoa puskatu egin zen. «Hi militantea haiz, lan hauek zeudek eta punto», kon-

tatzen du garai hartan Donostia inguruan funtzionatzen zuten batek. «Eta horrela lortu zen greba orokorrak antolatzea, Orbegozoko greba eta abar».

Peixotoren ustez, eta Txikiak planteamendua teorikoki ez zuela formulatua aitortuz, KAS txiki bat antolatu zuten eskualde horretan. ETAREN estrategia ere ez zegoen gero bilakatuko zen bezain koerente eta garbitua. Eta kontzepzio taktiko bezala ikusten du Peixotok.

Baina hori horrela ulertzeko motibu bat badu Arrasatekoak: bere liburutegia eza-gezteko aukera izan zuela.

Txikiarenetxean, honako liburuok aurkitu zituen Peixotok: Che Gevararen obra konpletoak, Clausewitz-en «La Guerra», Orixek idatzitako «Santa Kruz Apaiza» eta Auspua saileko bertso eta kanta guztiak.

«Baina bere jokamoldea ezagututa», dio Peixotok, «garbi iruditzen zait oso ondo ezagutu zuela Zumalakarregi eta bere taktika hautatu zuela, ez estrategia, bere taktika». Mao-Tse-Tung-ek ere irakurria omen zuten Londresen Zumalakarregiren bizitza. Eta Zumalakarregiren gerrari ekarritako berrikuntza ez zen izan batzuek dioten bezala gerrilla egitea. «Zumalakarregi izan zen gerrilla ejertzito erregulararekin organikoki erabili zuten lehena. 25.000 gizon erabiltzen zituen».

Zumalakarregiren eta Txikiaren arteko kointzidentziak

Ez da hori Jose Manuel Pagoagak Txikiari Zumalakarregirekin aurkitzen dion antza bakarra. Gainera, biak hil ziren Bilbo aldean eta biak Madrili erasotzeko dirua Bilbon aurkitu beharra zutelako. Jakina da Zumalakarregik Madrila joan nahi zuela, gerrako ekilibrioak karlistek eraso hori egiteko egoki samarra zirudienean, baina Don Carlosek agindu zion beharrezkoena Bilbo hartzea zela, hura hartuta bai zelako posible Madrili ekitea.

«Txikiak ere ez zuten Bilbora joan nahi. Eta hala ere haruntza egokitu zitzaion joan beharra. Madrilen jotzeko azpiegitura sendoa behar da eta garai hartan ari zen ETA Altos Hornosko atrakoa prestatzen. Bera ari zen horretan beste batekin eta ez zitzaion detaileren bat edo beste baino falta, ihes egiteko kotxe bat lortu eta detaille batzuk. Eustakio hil eta laster egin zen atrakoa. Carreroren bolatzea ere orduan zegoen planteiatua».

Ha acompañado de otro activista, que consiguió fugarse

EUSTAQUIO MENDIZABAL "TXIKIA", MUERTO A TIROS AL ENFRENTARSE A LA POLICIA EN ALGORTA

Era el máximo responsable del frente militar de la ETA



Habia nacido en Isasondo, Guipúzcoa

PARTICIPO EN LOS SECUESTROS DEL CONSUL BEHIL Y DE LOS INDUSTRIALES LORENZO ZABALA Y FELIPE MARTÍ



El día 10 de mayo de 1985, el activista Eustakio Mendizabal, conocido como 'Txikia', fue asesinado por la policía en Algorta. Este hecho marcó un punto crucial en la historia de la ETA, ya que Mendizabal era considerado el máximo responsable del frente militar de la organización. El artículo detalla su participación en importantes secuestros, como el del consulado de Behil y de los industriales Lorenzo Zabala y Felipe Martí. Se menciona que fue acompañado por otro activista que logró escapar. El texto también hace referencia a su nacimiento en Isasondo, Guipúzcoa, y a su papel en la estrategia militar de la ETA.

Bere heriotzaren biharamonean, hola kokatzen zuten egunkariak Txikia hil zuteneko lekua.

Antza guzti horien sustraian Eustakio Mendizabalen jatorria ikusi behar da: herri txiki batekoa, baserri girokoa. Hori ageri da ezagutu zutenek kontatzen duten hainbat anekdotatan. Izakera isilekoa, eztabaida batean ez zuten parte hartuko beste guztiek esandakoak bazterretik entzun arte. «Baina ehiztari edo menditar izakera denetan zuten. Erreka — Bidasoaz ari da, noski— pasatzerakoan ere zulo batean ezkutatuta katu baten tanke-ran egongo zen eta halako batean, inguru guztiak ongi erreparatuta, korri!».

Non da mendia?

Mendiari urte haietan eman zitzaion garrantzia ere bide beretik doa. Gordelaku eta biltoki bezala lehen ez bezalako inportantzia eman zitzaion mendiari, basoari, ETAREN zuzendaritzan asko giro horretakoak zirelako.

Mendian ziurtasuna. «Edozein lekuta-

ra joan, eta lehendabiziko gauza: non da mendia? Bilbo aldera joan ginenean ere, hi, eta ihes egiteko nondik? Eta, begira: hango mendi haietatik gainez-gain Gorbaiara iritsiko haiz. Handik aurrerakoa badakik».

Hiri haundiek sekulako beldurra ematen zieten gizon haiei klandestinitate la-

nerako. Beste batzuek aldiz, urteen buruan ETaren buruzagitzara iritsiko zen Jose Migel Beñaran «Argala» adibidez, primeran mogitzen ziren hirietan. Baita Madrilan ere, herri txikiagoetan baino han lan egitea askoz ere errezagoa zela esaten zuten.

Txikiak, dena dela, mendirako dohain

izugarri bat zuen, Euskal Herriko mendi gehientsuenak ezagutzen zituelarik, eta gorputz oso gogortu bat. Duela gutxi GALEk jarritako bonba baten ondorioz hil den Tomas Perez Revillagatik esaten dute botak erostera joanda esan ohi zuela: «*Dame unas botas, pero como las de Eustakio, con motorsito*».

Eustakio Mendizabalek artean Lazkaon zegoela idatziak dira bertsook, eta geratzen zaizkigun berrienetakoak. Badakigu gero ere segitu zuela. Pertsonalki asko eboluzionatu zuenez, langileei jarri zizkiela dakigun bertso batzuek adibidez, asko gustatuko zitzaigun ezagutzea, eta here klandestinitate garaietako beste hainbat ere bai. Denak hildu eta gizon jakin baten eskutara joan omen ziren, egunen batean argitaratzekotan. Orain inork ez du haien aztarnarik ematen. Betirako galduak direnik ez genuke sinistu nahi.

AMA, TXUKATU MALKOAK

Aralar mendi txit gandorrean
Ama Euskera nekusan.
arratsa bezin goibel, negarrez
umetxo bateren gisan:
biotz-barrengo negar-zotinak
ezin zituala jasan...
«Zer duzu, Ama?» galdetutzean,
onelatsu zidan esan:

«... Zeruetako Jainkoak naita
milla urte anitz dira
Euskal-erriko lur done ontan,
sortu nintzala argira.
Ainbat gizaldi ondorenean,
gaur-egun seme, begira...
Seme-alaben burla-ixekak
naramate il-obira!

Ikastol eta eliz askotan
atea didate itxi:
atzeritarrak ta seme askok
lapur bat antzo ezetsi!
Nere izena apaldu arte
iñoiz ezin dute etsi...
Zer egin diet etsai bezela
ainbat nazaten gaitzetsi?

Izkuntz arrotzak dira nagusi
mendi, enparantz, kalean...
irradi eta aldizkariak
datoz erdera elean.
Euskera ortxe baso, sukalde,
txoko apalki batean...
Mamur ta mintzul, ezin besterik
ke, negar, zotin artean.

Azken gudate ondorengo
ogei ta sei urteetan
erderak arro dabiltz, erronka,
zazpi Euskal-errietan.
Ni berriz emen, sorterrri bertan,
bizi-arnas azkenetan...
sukal-txokoan negar egiñaz
aiton-amon mingaiñetan!

Euskal-erriko bazter denetan
atzerrian antzo nabil...
ez-ezagunen artean aur bat
beziñ apal eta ixil!
Ene burua gara ez dediñ
ba-ditut milla maratil...
Gaiztagiñai lez, arrano begiz,
etsaiak so ditut urbil!

Erdaldun dira mendi-zaliak,
eta amaika sukalde!
Bereaz aitzuz erdal-izkuntzaz
asko itsuturik daude.
Aberri eta euskal-izenak
guziz zaie arrobide...
ta antziñako oitura zarrak
oro nai lituzke gorde!

Euskal-erria gorde nai dute,
eta nik damaiet lotsa...
Seme-alabak ola ikustea
Amarentzat zein mingotsa!
Aberri-muiña galdu ezkeroz,
zertarako dute kutxa,
azalez eder izanda ere,
barrendik bai dago utsa?

Euskal odola daramazu ta,
zeranez ene soin-atal...
aur-adiñetan artu zendunez
neregan atseden-magal...
ainbat oztopoz etsai artean
bein betiko ez nadin gal...
ai, seme laztan, lasterren laster,
enegaz zaitetz urrikal!

Aberriaren muiñ ta oiñarri
ni naizela zaitetz oroi,
ta ez nazazu luzaro utzi
izkuntza arrotzen morroi!
Ene burua goratutzea
ziñez nai ba' duzu, otoi,
buru-belarri biur lanera,
oraintxe bai duzu sasoi».

«Ai, Ama kutun!, erantzun nion,
itzali zazu negarra!
Ortz-illunean ñirñir bai dago
oindik itxaron-izarra.
Askok baztertu ba' zaituzte're,
zu zaitugu, izkuntz zarra,
ele denetan, biotz-niniaz
maitatzen dugun bakarra!

Etzazu geigo zure negarraz
samindu euskal gogoak...
Negu otzari jarraiz bai dator
denbora obeagoak.
Zeru goi-goitik esku luzatuz
oro dezaken Jainkoak,
loraz jantziko zera berriz ta
AMA, TXUKATU MALKOAK»

1967

Mendiarekiko eta basoarekiko maitasun horretan fraidetzatik pasatako beste askoren kide ere bada, eta Gandiagaren poemak irakurri besterik ez dago. H'or lotu beharko da Teillard de Chardin batek bere obrarekin Elizan bezala gazterian garai batean izandako eraginarekin.

Txikia euskaltzale eta poeta

Eta euskara zen bere bizioa. Bere emazte izan zen Anabelek dio denbora liberrik hartzen bazuen euskarazko libururak irakurtzeko zela. Berdin Axular bera. «*Ezagutzen duzu hemen Ondarroako kaleetan egoten den giroa, poteoa, gauetako giroa etabar. Eta Eustakio berriz ez zen sekula irten zale*».

Euskara pilo bat irakurri zuela bere poemetan ageri da. Bizkaiko bezala Iparaldeko aportazioekin, bera hil eta geroago finkatuko zen euskara batura asko urreratzen da. «*Ama, txukatu negarrak*» bertsoak irakurri besterik ez dago.


Penagarria da dena dela bere idatziekin suertatu dena. Bere oroimenean benditar izan zen garaian idatzitako bertsoak biltzen dituen koadernillo bat eta «Oleriti» aldizkarian argitaratutakoak baino ez zaizkigu geratu. Beste mordo bat ere bazen, eta interesgarrienak seguru aski, klandestinitate lanean zebilenean idatzitakoak. Baina bere biografia eta lanekin liburu bat egin behar zela eta bildu ziren materiale guzti horiek galdu egin dira. Horien aztarnarik ateratzeko egin ditugun ahalegin guztiak alferrikakoak suertatu dira, tamalez.

Euskararen borroka ez zen, ordea, bere borroka pertsonal gisa bakarrik planteatzen, eta ETako zuzendaritzan egoteko jakin beharreko baldintza suertatu zen. «*Orduan aurean genbiltzenok euskal hiztunak ginen, hori da asuntoa. Eta erdaraz berba egiten genuen Fronte Obrerokoak zetozenean eta hola*».

Ehiztariaren intuizioa

Orain arte ikusitakotik atera daiteke Txikiaren dohain nagusienetakoa: intuizioa. Bere «usaina», ezagutu zuten guztiek aipatzen dute. Intuizio horrek salbatu zion bizia behin baino gehiagotan.

Baina aldi berean harekin lan egitea oso zaila zela diosku direzian ezagutu zuen batek. «*Egun batean izugarri haserretu eta esan nion: 'Hi, Eustakio, hik ez duk hemen egingo nahi duana, entzuten*



Eustakio Mendizabal atsedendaldi batean. Hilabete gutxiren buruan hilgo zuten.

duk?' Zuri-zuri eginda zutitu zen... eta ez zuen ezer esan. Hutsa falta zitzaion murturreko bat emateko.

Baina jarraitu genuen eta erabakia hartu. Beti izaten da prolema noiz gelditu eta noiz hasi. Geldiuneak markatzea oso gaitza izatez da beti, jendeak ez bait du geldirik egoteko gogorik izaten. Geldi egongo ginela erabaki genuen orduan. Hurrengo egunean etxera joaten gara, jaiki goizean eta galdetzen diot bati: 'Hi, Eustakio non jak?'. 'E'txak'. 'Non kristo jak ba hori?'. 'Papertxo bat utzi dik'. Ate azpian papertxo bat utzia zuen: 'Ene gizonak beha zeudek. Agur'. Nere haserre!

Baina berriz zetorrenean oso ondo hartzen zen. Lehentasunak jartzen oso zuhurra zen, eta argi ezagutzen zituen Erakundearen beharrak. Kasu hartan,

adibidez, eman dezagun kajan hogeimila duro zeudela eta tipoa bueltan hamar milioirekin etorri. 'Joder, hi, kristoren batxetik atera gaitxik' eta ezin gaizki hartu».

Obsesio bat: Herriaren konfiantza

Estrategia hasiera batean bederen erabat argitua eta zehatza ez zela ETAn orduan zuzendaritza inguruan ibilitakoek berek aitortzen dute. Franco bizirik eta sendo, ia hilezkor, ikusten zen garai haietan nola zehaztu estrategia politiko batean printzipioetan azaltzen zena?

Bi giderren inguruan ikusten du Peixotok Eustakio Mendizabalen bide politikoa: abertzale izateko euskara behar da; eta nahiz eta abertzale izan eta euskaldun, horren alde borrokatu, borroka

erreal bat. Eta berdin kritikatu zuten espainolismo aldetik zihoazenak bezala abertzale radikal aitortu eta borroka dinamika batean sartzen ez zirenak.

Guztiaren muinean berriz euskara. Behin talde batean galdetu omen zioten: ea zein zen ETaren marko politikoa. «Gure borrokaren marko politikoa? Hizkuntzak ematen duena».

Eta horrekin batera gizontasunaren printzipioa. Gizontasuna, zintzoki jokatzeari, Herriaren konfidantza lortzea. Bere obsesioa beti «*Herria konfidantza galtzen ari zaiguk*» izaten omen zen. Itsasondotik ezagutzen zuen eta geroztik ere traturik galdu ez zuen Iñaki Larrañagak dioen bezala, edozein ekintzaren ondorengo betiko galdera zuen: «*Hi, eta zer esaten dik jendeak?*».

Erakunde zuloan zegoeneko garaiez oroitzen da Peixoto. «*Gizon izan beharra zegoen, arlo guztietan, Herriaren konfidantza lortzeko. ETaren konstante bat izan da daraman urte mordoan: gauzak reibindikatu, nahiz eta kontrakoak izan, egia esan... ETaren kapitalik haundiena gaur egun bere kredibilitatea da*».

Ekintza azken mugetaraino

Kristautasunetik apartatua bazen, marxista izatera ez zen iritsi, antimarxista sekula izan ez bazen ere. Beharrik sentitzen ez zuelako. «*Hemen aurrera egiteko Herriak sentitzen duena egin behar da, hortik aterako diagu*». Militantzia oso estrikto batera zeramaten printzipio zabalak.

Eustakioren denboretan azalduko zen gero ETaren historian hainbesteko pisua izango zuen militante gaztea: Jose Migel Beñaran «Argala». Hasieran militante zaharrei dogmatiko irudituz zitzaizen gazte hark emango zuen «*Herriaren alde hiltzea*» filosofiatik aurrerako urratsa, beste bat erantzis: «*Irabaztea*».

Txikia, ordea, politikoa baino ekintzaile zen eta oroz gainera erabateko militantea. Baina ez militante gogorra seguritate «a rajatabla» eramateagatik, edo bizimoduaren austeritateagatik bakarrik. ETaren V. asanbladak jarritako fronte plantamentua segitzen zen. Lau fronte, eta laurak enfrontamentu biolentia eskatzen dutenak. Eta lauen artean borrokarik gogorrena armatua, nahiz eta oso ondo ulertu beste batzuek beste lanak egitea.

Baina fronteak beretzat periferiak ziren, baita erakunde armatua bera ere. Beretzat garrantzikoena zentro bat egitea zelako. Foko bat, dinamika aintzindari izango zena. Peixotok definitzen duen bezala: «*Zuzendaritza ez zuen egin-goi ideialak zituenak, dinamika zentro hori eramaten zuenak baino*».

'Eta gero?' 'Borrokan hil'.

Lan haundia egin zen bost urte haietan, eta garai haietako egunkarien orriak dira lekukorik onenak. Txikia etxean bezala ibiltzen zen batera eta bestera. Bere gurasoek aitortzen dute askotan ikusten zutela pasatzen, batzuetan agur eginaz, bestetan periodikoarekin aurpegia estaliz. Jende askok ezagutzen zuen.

Ibilera hark nora zeraman bazekien, bestalde. Heriotzari ere usaina hartzen bait zion Eustakiok. Benito Amundarainek kontatzen du nola egun batez Donostiako Parte Zaharrean aurkitu zuen. «*Baina zer habil hemen?*». «*Badakik, ibili beharra zegoen eta...*» Eta aurreraxeago: «*Hi, egunen batean... bazekiat, nik horrela hil behar diat*».

Joxe Manuel Pagoagak kontatzen du beste hau. «*Ni ihes egin berria izaki, eta uste nuen bizia arriskatu behar banuen nola irabaziko genuen ere ikusi nahi nuela. Egun batean bere etxera joan eta galdetu nion ea zer egin behar genuen. 'Orain, kanpaina hau eta gero beste hura'. Eta nik: 'Eta gero?'. Gero halako eta bestelako'. 'Eta gero' eta segi; eta halako batan: 'Eta gero?' 'Borrokan hil', horrela, abotsik mudatu gabe. Eustakio konturatzen zen garai hartan hil egin behar zela. Herri bat ginela, askatu egin behar genuela eta... borrokan hil».*

Baina aldatetaz bazetozen. Eta aldatetaz horretan ETaren sendotzea. Gero eta ekintza anbiziotsuagoak eta arriskugarriagoak. Bilbon sartu beharra zegoen, eta Eustakiok usain txarra hartzen zion. «*Ni hemen ezagutzen nautela esaten ditek, baina hau ere nik ondo ezagutzen diat. Baina Bilbon zer, nora jo, nondik egin ihes?*».

Hainbeste beldur zion Bilbo mardarikatura

Nahiko gertutik zebilzkion azken hila beteetan poliziak. Azkeneko eskapada, sekulakoa, Zumarragan egin zuen, eta suerte haundi batekin eta dena arriskatuz

lortu zuen hango kanposantutik barrena ihesi ateratzea.

Baina Bilbora joan beharra zegoen. Carreroren operazioa martxan zegoen eta beste batzuk ere zehaztu beharrean zuden, karnetena eta Altos Hornosko atrakoa esate baterako. Hala ere, azken eguna ongiena berarekin ibili zen Peixotok kontatzen du.

«*Gauza da Eustakiok deitzen didala Bilbora, ez dakit zertarako. Jartzen dit zita Errekaldeko taberna batean eta han elkartzen gara hamar-dozenaren bat ilegal. Eta esaten dit nik berekin joan behar dudala*».

Ateratzen gara taberna hartatik, kristoren multzoa, klaro, eta hor datoz bi kotxe beltz, milkinientosak biak, bete-beteak. Ikusi genituen, dudarik ez txakurrak zirela, baina ez ziren ausartu ezer egitera. Aurrera segi zuten eta... bakoitza bere aldetik. Eustakio eta biok Matikora. Orduan ezagutu nuen Matiko.

Etxe batean sartu eta han bazkaldu genuen. Madrilgo komandoaren ordezkari bat zegoen han, Carrerorena prestatzen ari zirenetako bat. Carreroren ekintza eztabaidatu zen, eta baita karnetena ere. Eta seiretan Algortako tren geltokian egoteko.

Algorta, arratsaldeko seiak geltokian

Seietarako Algortako estazioan nengo, trenaren zain. Irteten da Eustakio trenetik, heldu da niregana, betiko bere tabardo berdearekin, eta hiru bat metro-tara seinale bat egiten dit ahoarekin, hortzak hola jarrita. Eta atzetik gizon multzo bat ikusten dut, baina bi aurpegi ditut buruan, kristoren gizon tzarrak, hamarren bat. Parean jarri naiz eta Eustakiok: «*Atzetik zetozek. 'Ziur hago?'. 'Bai, ziur nauk'. 'Bueno, goazen haruntza, ea segitzen gaituzten'. Eta haiek beti atzetik.*

Jarraitu genuen, bueltan-bueltan, eta etxe baten portal ondoan geratu ginen. Begiratu atzera eta ordurako denak linean zetozen, zabalean, bidea oso-osoan hartuz, eskuak hola txaketan sartuta (bizkarzainen ohizko keinuan). Eta Eustakioren aurpegiari heriotza zen, klabao, aho inguru zuri-zuri.

Bat batean, arnasa hartu zuen eta 'korri egin behar diagu!'. Lasterka hasi eta besteak atzetik tiroka. Lehenengo kolpetik

distantzia hartu nion Eustakiori; baina orduan ez du funtzionatzen buruak, nik uste, instintoak funtzionatzen du, eta frenatu egin nuen, berari itxoiteko.

Aurrera gindoazela korrika, berrogeitamarren bat metro egingo genituen, eta nik eskilara batzuk ikusi nituen eskumatik, eta bidea mendi-ebaki baten ondotik zihola. Nik eskilarak hartu nituen, igo abiada batean eta goian, kaxko batetik, behera begiratu eta ikusi nuen azken aldiz Eustakio, oso hurbil besteengandik, eta tiroka.

Behetik gora nire atzetik ikusi nituen, eta aurrera egin nuen eskilaretatik gora, lehengo kale berera irten berriz, eskaratz batean sartu eta txaketa bota, Garratzek emandako txaketa marroi bat, eta irten egin nintzen. Txaketa... goizean errietan aritua nintzaion Eustakiori: 'Hi ere ba haiz bada, Ostegun Santu eta erropa kabroi horiekin, txamardo alu horrekin'. Bera ere ez zegoen bromatarako eta: 'Hauek ere Ostegun Santuan ibiltzeko arropak dituk'.

Kotxe bat hartu eta etxe batera sartu nintzen. Eta kotxe hura semaforo batean zegoela, orduantxe pasa zen anbulantzia bat Bilbo aldera. 'Izorratu haute, Eustakio' pentsatu nuen nere artean. Tirotea hasi eta anbulantzia semaforotik pasatzen ikusi artean ez ziren bost minutu baino asko gehiago pasako».

ETAren jauzi koalitatiboa Txikiaren garaietan

Biharamonean, ostirale sainduz, Txikiaren heriotzea azpimarratzen zuten egunkari guztiek. «El Correo Español-El Pueblo Vasco» egunkariak adibidez hala titulatzan zuen bere lehen orria: «Eustakio Mendizabal, muerto a tiros al enfrentarse a la policía en Algorta. Era el máximo responsable del frente militar de la E.T.A.» . Gainean norbait engainatzeko bitxikeria bat: «La zona vasco-francesa espera con ansiedad la entrada de España en la C.E.E. Bayona no estaría arrinconada y su puerto sería ampliado. Guipúzcoa, Alava, Navarra y Vizcaya podrían contar con el aeropuerto de Biarritz-Parme». Beste egunkariak ere Eustakioren jefe izatea azpimarratzen zuten. «La Gaceta del Norte»: «Aquí murió el jefe de ETA».

Buruzagi nor den eta militante bakoitzak erakundearen ze nolako pisua duen jakitea ez da erreza izaten, klandestinitatea hain estu gordetzen duen organizazio



28 urte baino ez zuen Txikiak hil zutenean.

Bere hazia Ipar bezala Hego Euskal Herrian erne da.

batean. Baina Txikiaren garrantzia nabarmen geratu da. Areago, bere heriotzearen ondoren ekintzen beheraldi bat ikus daiteke.

Eustakio Mendizabal ekintzan ibili zen garaietan ETAk jauzi koalitatibo bat eman zuen bere agerpenetan. Behil kontsul alemanaren bahiketa, Zabalaren bahiketa (euskaldun bat bahitzen zen lehendabiziko aldia), Huarterena, Sindikatuen erreketeta, Orbegozo eta Pasaiko kamionetaren atrakoak, Hernaniko harrobitik dinamita eramatea... Eta ekintza gehienak Oretetatik Tolosarainoko eskualdean ematen dira.

Txikiarengandik Argalarengana

Poliziaren taktikak denbora batez gairatzen edukitzeaz gain, ekintzen azeleratzearen eragina alde guztietan antzematen zen: langile mogimenduan eztabaidak sortzen ziren, Eliza konpromezu batean jartzen zen gertakizunen interpretazio bat ematerakoan. Europa mailan bestalde aparteko oihartzuna hartzen zuen euskal nazio arazoak, eta kazetariak hurbiltzearekin batera solidaritate batzordeak hasi ziren antolatzen han-hemenka. Beren laguntza 1975ean, Txiki eta Otaegiren afusilaketaren aurrean, erakusteko aukera izango zuten.

ETA militanteek garai horretan eman behar duten beste urrats bat aipatu digu Txikiaren denboran militante izandako batek. «Heriotzearen posibilitatea erreal bihurtu zen guretzat Eustakioren hilketarekin. Polizia ere ikasten ari zen, eta Txikiaren eta bere ondoren etorri ziren heriotzeei erreparatzen badiezu, konturatuko zara detenitzeko ordez liberatuak hiltzeko ordena zutela».

Txabi Etxebarrietaren heriotzearekin kale mailan halako haserre erreazio gogor bat izan zen bezala, Txikiarenean pena eta ezintasun sentsazioa zabalagoa izan zen. Mito baten erorketa. ETAren ekintzak ere, kopuruz bederen, urritu egin ziren, erorketa eta heriotze gehiago ere izan baitzen ondorengo hilabeteetan: Iparra, Artetxe... Baina bere eragina koalitatiboki mantendu egingo zen, Carreroren boladura famatuarekin punturik gorenetakoa harrapatuz.

ETAk izan duen beste gizonik inportanteenetako bat aurkituko dugu berehala, Jose Migel Beñaran Ordeñana «Argala», Itsasondoko semearen aldean erabat ezberdina. Baina hark bezala erakundeari dinamika eta abiadura azkarrak erantsiko dizkiona.

GATZAGA TALDEA